

Amuriza: «Nire bertsolari bizitzako egunik hunkigarrienetakoa da gaurkoa»

Lazkao Txikiren bertsogintzaren bilduma aurkeztu zuen atzo Lazkaomendin


Asier Iturriagaetxebarria / Lazkao

Joxe Migel Iztueta *Lazkao Txiki*-ren bertso antologia prestatu du Xabier Amurizak. Atzo gauean egin zuen ikuskizun horren aurkezpena Lazkao Txiki jaio eta bizi izan zen auzoan bertan, Lazkaomendiko Lartxai elkartearen azpian dagoen pilotalekuan. «Joxe Migelek bat-batean botatako perlen bilduma egiten ahalegindu naiz», esan zuen Amurizak ikuskizunaren aurretik eskainitako prentsaurrekoan.

BAT-BATEKO SORGINA deitu dio Xabier Amurizak Lazkao Txikiren bertso lanaren inguruan antolatu duen ikuskizunari. Bertsolari zornotzarrak bat-bateko lanean Lazkao Txikik zuen abilezia azpimarratu zuen eta haren «genio» izaera. «Bertsolari moduan genio bat izan zen. Genioak ez dira sekula berdinak izaten, bakanak izaten dira. Horregatik ez da sekula beste Joxe Migel bat sortuko. Genioak sortuko dira, baina bera bezalakoak ez».

Adierazpen horiek saioa baino lehen eskainitako prentsaurrekoan egin zituen Amurizak. Abalin baserrian, Lazkao Txiki jaio zen etxean, egin zen prentsaurreko hori. Hunkituta ikusi zitzaion Amurizari gero berak aitortu zuen legez. «Nire bertsolari bizitzako momenturik hunkigarrienetakoa da hau». Izan ere, Lazkao Txikik bere bertsoetan aipatutako elementuak bere begien aurrean izateko aukera izan zuen. «Beste gauza askoren artean Joxe Migelen seaska ikusi dut. Askotan aipatzen zuen berak seaska hori, eta gaur ere aipatuko da nik bildutako bertsoetan».

Antologia horrekin Lazkao Txikiren izaera eta bertsogintzaren aurpegi ezberdinak agerian geldi zitezela bilatu du Amurizak. Horretarako Iztueta kantatutako ehun bertso aukeratu ditu, nahiz eta hasiera batean 300 bertso izan zituen esku artean. Lan hori egiteko *Irriz eta malkoz* liburua izan du abiapuntu.



Xabier Amurizak Abalin baserrian, Lazkao Txikiren jaitetxean.

XABIER AMURIZA
Bilduma lana
■ ■ ■ «Genio baten balio inprobisatzailea biltzea izan da lan honen helburua»

«Eginda dagoen lan batetik zurrupatu egin dut nik nola-baiteko antologia bat egiteko. Beraz, askoren artean egingdako lana da hau», azaldu zuen Amurizak.

Aipatu legez, Lazkao Txiki genio bat zela esan zuen zornotzarrak, eta genio izaera hori batez ere harek bat-batean kantatutako bertsoetan antzematen dela. Lazkao Txikiren lana bat-bateko bertsoetan ikus daitekeenez materiala biltzeko zailtasunak daudela ere esan zuen, eta haren bertsogintzaren zatirik azpimarragarrienak biltzen

saiatu dela. «Bat-batean botatako bertsoak haizeak eramaten ditu, eta ondo eramanda daude. Bat-batean gertatzen diren perlak jaso eta atera behar dira, eta hori izan da nire lana. Genio baten balio inprobisatzailea biltzea izan da helburua. Altxor pasakorrak jaso behar dira, hau da, perlak perlen ondoan gelditu behar dira», aipatu zuen.

Ehun lagun inguru bildu ziren saioan

Lazkao Txikiren jaiotetxean izan ostean bere ikuskizuna aurkeztu zuen Amurizak Lazkaomendiko Lartxai elkartearen egoitzan. Ehun pertsona inguru bildu ziren bertan,

gehienak auzokoak bertakoak. Ordu eta erdi inguru iraun zuen, eta bi zatitan banandu zen saio. Bitartean afari goxoa dastatzeko parada ere izan zuten.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak gaur hasiko du denboraldia Euskaldunan

■ Zacharias pianojolea izango da bakarlaria

Erredakzioa / Bilbo

EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAK gaur hasiko du 1999-2000 denboraldia Bilboko Euskalduna Jauregian. Denboraldiko lehen kontzertua Gilbert Varga maisuak zuzenduko du eta Christian Zacharias pianojole ospetsua ariko da bakarlari lanetan.

Arratsaldeko 20:00etan hasiko den emanaldian Rossiniren *La Gazza Ladra* obertura, Mozarten *Piano eta orkestrarako 23. kontzertua* eta Txaikovskiaren *Laugarren Sinfonia* interpretatuko ditu Euskadiko Orkestrak.

Gaur Bilboko Euskalduna Jauregiko auditorioan orkestrak eskainiko duen egitarau berbera izango da entzungai datorren asteartean Iruñeko Gayarren, asteazkenean Gasteizko Principal antzokian eta ostegun zein ostiralean Donostiako Kursaal.

Zacharias pianojole indiarra Alemanian bizi da gaur egun eta munduko orkestra onenekin aritu ohi da.